



# TopaGune: AHAL: Parte hartu, nahia eta ezina



Parte hartzeko aukerak eta baldintzak ematea ezinbestekoa da, eta erabat loturik dago parte hartzeko eskaintzen diren denbora, modu eta bitartekoekin. Baldintza eta ezaugarri horietako partaidetzan, nork parte hartu dezake eta nork ez?

**Ots. 25 2023**

**Kod. G02-23**

**Mod.:**

Aurrez aurrekoa

**Edizioa**

2023

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Ots. 25 2023

**Kokalekua**

Miramar Jauregia

**Hizkuntzak**

Euskara Gaztelera

**Balio akademikoa**

10 ordu

**Antolakuntza Batzordea**



# Azalpena

Parte hartzeko aukera eta baldintzak eman behar dira. Prestutasuna bakarrik ez baita nahikoa, eta prestutasuna bera aukera eta baldintzen arabera ere izan daiteke. Parte hartu nahi duen orok ezin baitu parte hartu, ezberdinkeriak lekua duen gizarteetan, bederen ez. Maila ekonomiko eta kulturalak, genero eraikuntzek, esleitutako arrazak, egoera administratiboak, adinak, gaitasun funtzionalek, sexualitateak, bizitokiak, digitalizazio mailak, mugikortasunak, hizkuntza ahalmenak eta abar luzeak eragina dute parte hartzeko baldintzetan. Ahaztu gabe, Partaidetza aukeretan elkarte zein administrazio publikoek eta sistema politikoak proposatzen duten bitarteko, denbora eta moduek ere partaidetza ahalmena handitu edo gutxitu dezaketela. Partaidetza bultzatu eta sustatzeko asmoz, balioan ipini eta aitortzeari begira, hobariak egon behar ote dira? Zeintzuk dira horren arrisku eta indarguneak? Mundu zabalean zein esperientzia daude? Gipuzkoan zein gogoeta egin dira?

Ikastaro hau “Partaidetza aztergai: nahi, ahal, jakin” solasaldi zikloaren bigarren saioa da. Zikloa “Nahi: parte hartu, ala ez parte hartu, hori da gakoa” eta “Jakin: partaidetza-on” saioekin osatzen da.

## Helburuak

- Parte hartzea bultzatzeko nola sortu aukerak eta baldintzak: zailtasunak dituzten giza kolektiboei ahotsa eman hauen premiak eta proposamenak entzuteko.
- Zein dira arrakala nagusiak eta nola aurre egin.
- Parte hartu ahal izateko hobari eta modu ezberdinen inguruan hausnartu, aukera eta arriskuak.
- Kanpoko zein bertako esperientzietatik ikasi.

## Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa

# Programa

**2023-02-25**

|               |                                                                                                                                                     |
|---------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 09:30 - 10:00 | Erregistroa eta kafea                                                                                                                               |
| 10:00 - 10:15 | Jardunaldiaren aurkezpena: Mikel Pagola, Itziar Alkorta, Ainhoa Novo, Ion Burgaña                                                                   |
| 10:15 - 10:30 | AHAL, jabetuz girotze dinamika                                                                                                                      |
| 10:30 - 11:20 | Mahai-ingurua: PARTE HARTZEA BULTZATZEKO NOLA SORTU AUKERAK ETA BALDINTZAK                                                                          |
| 11:20 - 11:50 | Solasaldia Taldeka                                                                                                                                  |
| 11:50 - 12:10 | Atsedena                                                                                                                                            |
| 12:10 - 12:40 | <b>Ponentzia: Egungo partaidetza aztergai, Zein ezaugarri ditu momentu honetan partaidetzak?</b>                                                    |
| 12:40 - 13:30 | Talde hausnarketa                                                                                                                                   |
| 13:30 - 14:00 | Goizeko saioaren ondorioak eta itxiera                                                                                                              |
| 14:00 - 15:30 | Bazkaria, luntxa                                                                                                                                    |
| 15:30 - 15:45 | Arratsaldeko programaren errepasoa                                                                                                                  |
| 15:45 - 16:05 | Ponentzia. AHAL izateko, baldintzak eta formulak. Partaidetza errazteko, bermatzeko baldintzak eta-formulen aukerak, arriskuak eta kontraesanak.    |
| 16:05 - 16:35 | Mahai-ingurua: AHAL izateko, baldintzak eta formulak. Partaidetza errazteko, bermatzeko baldintzak eta-formulen aukerak, arriskuak eta kontraesanak |
| 16:35 - 17:30 | Solasaldi irekia                                                                                                                                    |
| 17:30 - 18:00 | Ondorioen aurkezpena eta jardunaldiaren itxiera                                                                                                     |

## Zuzendaritza



**Olatz Dañobeitia Ceballos**

Gipuzkoako Foru Aldundia

---

# Matrikula prezioak

| AURREZ AURRE                   | 2023-02-25 ARTE |
|--------------------------------|-----------------|
| <a href="#">Matrikula doan</a> | 0 EUR           |

# **Kokalekua**

## **Miramar Jauregia**

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa